



eskohitza
danona da



Kultura eta jaiak

- Herriko taldeak indartu. Erraztasunak eskaini. Diru laguntzak eman dkutur ekintzak egiteko, nahiz eta eratu gabeko elkarteak izan.
- Neguan zine emanaldiak eskaintzea.
- Zaldibar aretoa: kudeaketa herriko ia izatea; herriko elkarteek erabiltzeko izatea; herriari begira egindako eskiantza; funtzionala izatea (aulkiak kentzekoak), guztiz bukatu arte ez zabaltzea, baina zabaldutakoan inaugurazio handia egitea.
- Eskoriatzarren arteko harremana sendotu: taldeak/elkarteak harremanetan jarri, koadrilak elkartu...
- Jaiak: erromeriak bultzatu, elizateetan zerbait egin, olinpiada herrikoiak... eta sanpedroak asterburura pasatzea aztertu.
- Huhezirekin harremanak landu.
- Liburutegian egunkariak irakurtzeko gunea manparekin ixtea eta langileen aldetik harreta atseginagoa izatea.

Kirola

- Kiroldegiaren egitura berrantolatu.
- Pilotalekua konpondu, erabilera berraztertu eta erabiltzen dena baino gehiago erabili.
- Igerilekua: kanpoan belarra aldatzea, hidromasajea jartzea.
- Indartu eta babestu herriko eragileek antolatutako ekintzak: txikirri, silbestradie, gabez takarraran, 7 elizateak.
- Bidegorrian iturria jartzea.
- Herri kirolak bultzatzea. Herriko koadrilen arteko jolasak.
- Aspaldiko futbito txapelketa berreskuratzea.
- Kirol eguna antolatzea, herriko kirol eragile guztiek parte hartzeko.

Gazteria

- Ludoteka zerbitzua berraztertzea: ordutegia, lokala, asteburuak, dinamika...
- Udalekuak, mantentzea gaur egun duen egitura (ordutegia eta egutegia)
- Neguan haurrek jolasteko aterpe baten beharra
- Udan kanpoko igerilekua 10 urtez beherakoentzat denez, motz geratzen da.
- Gazteen artean kirola sustatzea (futbito txapelketa esate baterako)
- Gazteentzako baliabide egokiak falta dira (batez ere 16 urtetik gorakoentzako), hala nola musika lokal duinak, sormen lokalak...
- Asteburu gauetan gazteentzako tailerrak antolatu eta alkoholik gabeko festak.

Euskara

- Euskararen aldeko erabilera bultzatu, euskaldunekin eta erdaldunekin lan eginez. Erabileran eragiteko euskararen aldeko jarrera egokiak landu.
- Gurasoak, seme-alaben izpilu direlako, euren hizkuntza jokabideen garrantziaz jabe arazi.
- "Lehen hitza euskaraz" moduko kanpaina egin, merkataritzan ere eraginez.
- Euskararekin esperientzia positiboak izateko aukerak eskaini (Berbalaguna, antzerki egokiak...)
- Herriko elkarteek euskararen alde egiten dituzten ekintzak udalak diruz laguntzea.
- Euskalkia eta hikaren erabilera bultzatzea.

Hezkuntza

- Jasotzen den hezkuntzaren kalitatea egokia dela uste da, nahiz eta batzuetan hezkuntza proiektuak ulertzea zail xamarra gertatzen den.
- Luis Ezeiza – Arizmendiko ikasleen arteko erlazioa ez da ona. Gurasoon arazoa ere izan daiteke. Irakasleek, erlazio txar honetan eragiten dute? Guztiak batzea posible den espazioak sustatu behar dira, udaleku irekiak bezala; adb. Urderlartero eguna, ludoteka,...
- Periferiako auzoetako ikasle gutxiagok parte hartzen du, ... partehartzea bultzatu behar da.
- Hezkuntza ez formala: eskaintza asko dago, agian larregi, talde oso txikiak egotea ekartzen baitu. Guztiak batu eta antolaketa/koordinazioa hobetu?
- Herrian Hezkuntza alorreko adituak ditugu, unibertsitatean. Erlazioak estutu eta herrira edo/eta hezkuntzan interesa dutenentzat elkarlanean zerbait antolatzen saiatu: hezkuntzaren astea...